

EMA TALDEKOENTZAT ARGIBIDEAK:

1. Eraso Matxista “arinen” kasuan:

- Jai gunera norbait erasotua izan dela esanez badator/idazten badu, eraso; entzun, identifikatu eta eraso zehaztu.
- Jai gunetik norbait erasotzen, molestatzen ari direla ikusiko bagenu; lehen bait lehen erasotuari laguntzarik behar duen galdetu. Ezetz badio ez gara tematuko. Baietz badio, gure laguntza eskainiko diogu.
- Jaigunean dagoen E.M.A. protokolo lan-taldeko kideren bati jakinaraziko diogu eraso.
- E.M.A. whatsapp taldea informatuko dugu. Eta telefono zenbaki honetara deituko dugu:
- Jai gunetik erasotzailea kanporatuko dugu (erasotzaileari gunetik alde egiteko aginduko diogu. Hau talde babesean egitea garrantzitsua da. Seguruagoa izateko eta gaitzespena argi eta garbi gelditzeko). Erasotzaileak ez badu kasurik egiten ert zaintzari deituko diogu.
- Erasotuari lasaitzeko txokora (biltegira, giltza txosnan egongo da) joateko aukera eskainiko diogu.

2. Eraso Larria den Kasuan-Asistentzia

- Eraso identifikatu eta jaigunean dagoen E.M.A. protokolo lan-taldeko kideren bati jakinaraziko diogu eraso.
- E.M.A. whatsapp taldea informatuko dugu. Eta telefono zenbaki honetara deituko dugu:
- Eraso larriak gertatzen direnean, bortxaketa adibidez, emakumeari jakinarazi beti eska dezakeela laguntza, salaketa jarri nahi badu edo nahi ez badu ere.
- SOS DEIAK 112
- Eraso pairatu duen emakumeak erabaki behar du beti protokoloa aktibatu nahi duen edo ez. Ezinbestekoa da emakumeari bere iritzia galdetzea.
- Emozionalki babes osoa eskaini: galdetu behar diogu konfiantzazko zein pertsonak lagunduko dion pauso horiek guztiak ematen. Ez badago inor, guk lagunduko diogu. Erasotua anbulatoriora/ospitalera lagundu beharrezkoa bada.
- Salaketa aukerak aipatu (ertzaintzara jotzea, hala bada ez garbitu, salaketa soziala egitea, mobilizazioak antolatzea... Azken batean erasotuari erabakitzeke aukera ematea eta aukera horietan akonpañamentua ematea) eta lagundu beharrezkoa bada.
- Bortxaketa bada: Ez garbitzeko, ez aldatzeko etab. aholkatu (erasotzailearen

frogak identifikatu ahal izateko).

- Egoera erregularizatu gabeko emakume atzerritar bat bada, protokolo bera jarraituko da, laguntza eta larrialdi zerbitzuak erabiltzeko eskubide berak ditu.

ZIZTADEN KASUAN

- Ziztatua izan dena leku lasai batean etzan edo eseraraziko dugu. Ez dugu inoiz bakarrik utziko. Gutxi gora behera 7-8 minututan azaleratzen dira ondorioak (mareoa, lurrera ziplo erori eta ezertaz ez oroitzea, trakets hitz egitea, ikusmen alterazioak, logura, nahastea, desinhibitzea, urduritasuna edo haluzinazioak (delirium), zentzu aldaketa, zorabioa eta bertigoa, motrizitatearen edo orekaren alterazioak, goragaleak edo botaka egitea...).
- Larrialdietara deitu 112 edo ospitalera lagunduko diogu.
- E.M.A. whatsapp taldea informatuko dugu. Eta telefono zenbaki honetara deitu:
- Erasotzailea nor den badakigu ertzaintzara deituko dugu.
- Hurrengo egunean zein erantzun sozial eman adostuko du E.M.A taldeak.

ERANTZUN SOZIALERAKO PROTOKOLOAK

- Erantzuteko erabakia herriarena da. Erantzuna emango den edo ez erabakitzeko antolatzaileak bilduko dira.
- Protokoloa jaien testuinguruan emandako eraso larri (bortxaketa, jipoiak, ziztadak etab.) baten aurrean aktibatuko da. Beste erasoen aurrean, lan-taldeak erabakiko du erantzuna eman edo ez.

- Aktibatzeko arduradunak: lan-taldeko arduradunak
- Protokoloa, eraso gertatu eta ondorengo 24 orduetan martxan jarriko da.
- Erantzun soziala eman behar bada, egin beharrekoak hauek dira:

Leloa: “Eraso Matxistarik ez, erasotzaileak kanpora!” Adibidez

Ordua eta lekua

Pankarta

Prentsa oharra

Kartelak kontzentraziorako deialdia zabalduz. Kontzentran musika geldituko da.